

MUko Industria Ingeniaritzako Masterreko eta Industria Diseinuko ikasleek taldeka auto telegidatuak diseinatzen eta fabrikatzen dihardute

2012/10/31

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak workshop hau antolatu du beste gradu batzuetako ikasleen esperientziarekin titulazio bakoitzeko ezagutzak aberasteko helburuarekin, Mondragon Unibertsitateak lehen aldiz Mekanika Ingeniaritzako eta Industria Diseinuko ikasleak Workshop batean bilduko ditu. Hiru egunez, gaitzeko hainbat ikastaro hartu dituzte 67 ikaslek, ondoren diziplina anitzeko zortziko taldeetan auto telegidatu baten maketa diseinatzeko eta fabrikatzeko ezagutzak trukatzeko gai izan daitezten. Esperientzia aitzindaria da, ekinaren bidez ikastea (learning by doing) oinarritzen dena. Aipaturiko bi titulazio horietako ikasleak, hainbat sentsibilitatetakoak, biltzen ditu, baterako helburu bat lortzeko: auto telegidatu baten maketa fabrikatzea.

Horrela, batetik, parte-hartzaileen ahalmen zientifiko teknikoak hobetuko dira eta, bestetik, taldekako lehiaketaren bitartez ikasleen artean motibazioa sustatuko da. Ikasleek karbono-zuntzarekin sendoturiko material konposatuz egingo dute karrozeria eta irrati-kontrol elektrikoko autoak 1/18 eskalakoak izango dira. Abiapuntutzat plataforma estandar bat erabiliko dute, trakzio- eta direkzio-sistema osoa duena.

